

KUBAN SORTU ZUEN ESPIOI SAREA AITZAKIATZAT HARTUZ, EUSKAL HERRIAREKIN ZUEN HARREMANA LANDU DU

Hemingway ezezaguna agertu du Alberto Barandiaranek 'Gaizkileen faktorian'

■ Kuban egin zituen urteak eta lehenago Euskal Herrira egindako bidaiek tartekatu ditu kontakizunean idazleak

■ «Kontatu dizkidatenekin eta asmatutakoekin osatu dut liburua, baina istorioa benetakoa da», azpimarratu du Barandiaranek

■ Kazetaritzako kronika gisako liburu hau Alberto Barandiaranek hirugarrena da, eta EGUNKARIA bildumako zortzigarrena

I. Olabarri / Bilbo

ERNEST HEMINGWAY-REN bizitzan garrantzi gutxi izan duen pasarte bati heldu nahi izan dio Alberto Barandiaran EGUNKARIAko kazetariak bere liburu berria egiteko orduan. Estatu Batuetako idazlea Kuban zegoela egin zuen eztanda II. Munduko Gerrak. Estatu Batuek Kuban zeukaten enbaxadan espioitza sarea sortzea proposatu zuen idazleak. Sare horren helburua ustez Estatu Batuetako Itsas Armada zelatzen zuten Alemaniako urpekariak bilatzea zen. *Gaizkileen faktoria* deitu zioten sare horri.

Hortik hasi du Alberto Barandiaranek *Gaizkileen faktoria* bere hirugarren liburua, kazetaritzako kronika gisako kontatua; aurrekoak *Pasionaria* eta *Ez zaigu ahaztu* izan ziren. EGUNKARIA bildumako zortzigarren lana da.

Hala ere, hori liburua sortzeko aitzakia izan dela nabarmendu zuen Alberto Barandiaranek. «Hor zen berrietasuna, alderdi bitxia. Hori aitzakia hartuta beste gai bat landu dut liburuan. Benetako asmoa izan da euskaldunekin eta Euskal Herriarekin izan zuen harremana aztertzea. Saiatu naiz tartekatzen espioitza istorio hori eta beste harreman maila hura».

Datu hutsez harago

Liburua biografia bat da, baina Euskal Herriatik eta euskalerritarrentzat idatzia, Alberto Barandiaranek hitzetan. «Saiatu naiz liburua ez dadin bata bestearen ostean jarritako datuen segida hutsa izan. Saiatu naiz hori girotzen eta euskaldunekin izan zuen harreman horretan sartzen. Bere bizitzatik egindako ibilbidea da. Saiatu naiz atsegin egiten kontakizuna. Kontatu didatenarekin eta berak kontatzen zuenarekin, nekienarekin eta asmatutakoarekin osatu dut liburua. Girotu egin dut, baina benetako istorioa da».



JOSU ETXEBARRIOSTE

Ibarluzearen oroimenez. Patxi Ibarluzea zesta-puntako jokalaria Ernest Hemingwayren lagunetako bat izan zen. Izan ere, idazleak zestalari ugari izan zituen adiskide min, eta horietako batzuk baita kide ere espioitza kontuetan. Ibarluzearen anaiaren alargun Alicia Ibarluzea atzo liburuaren aurkezpena agertu zen, eta bertan —argazkiak jasotzen duen moduan—, Alberto Barandiaranekin batera, gogora ekarri zituen garai hartako pasadizo eta gertaerak.

«Euskal Herria miretsi zituen herrien artean zegoen»

■ «NEURRI batean ezagutzen genuen Hemingway 1959. urtekoa zen, Nobel saria irabazi eta gero Iruñera etorri zena. Hemingway hura zen Hemingway alkoholizatua, psikotikoa, jada idazten ez zuena; karikatura bat. Uste dut Hemingway hori baino gehiago dela. Lehenengoz 1923. urtean etorri zen Iruñera, eta ondoren hamar urtetan jarraian

etorri zen Euskal Herrira. Donostian, Hendaian, Bilbon ibili zen, hemen idatzi zuen, hemen gozatu zuen. Lurraldeekin bazuen miresmen bat. Lehenengo izan zen Michigan, gero Italia eta Paris, gero Nafarroa eta Irati, gero Espainia eta Kuba. Gainera, lagun euskaldunak izan ziren gehientsuen iraun zutenak», Barandiaranek ustez.

Zesta-puntako jokalaria profesionalak EEBBetako espioi afizionatu

■ GAIZKILEEN Faktoriarako Kuban zituen lagunak hautatu zituen Hemingwayk: euskal zesta-puntako jokalaria, tartean Patxi Ibarluzea. Idazlearen etxea zen operazio zentroa eta *Pilar* arrantzontzia zuten urpekarien bila joateko.

«Uste dut ez zutela espioi bakar bat ere harrapatu. Itsasontzia prestatu zuten, armaz hornitu zuten. Eguneroko bat bazuten, eta

erabateko bakea da han agertzen dena. Egutero itsasoratzen ziren, parranda ederrak egiten zituzten... Uste dut behin topatu zutela urpekari bat, baina alde egin zuen. Azken batean afizionatu talde bat baino ez zen», dio Barandiaranek.

Patxi Ibarluzeari handik urteetara domina eman zioten EEBBetan, baina ez zen jasotzera joan.

A. BARANDIARAN

Aitzakia

■ ■ ■ «*Espioitza aitzakia hartuta landu dut euskaldunekin zuen harremana*»

Benetakoa

■ ■ ■ «*Nekienarekin eta asmatutako gauzekin egin dut liburua, baina benetakoa da*»

Hemingway

■ ■ ■ «*Gebienbat, ezagutzen dugu Nobela irabazi ostekoa, idazten ez zuena, karikatura*»

liburu guztietako pasarteak, Bazka aldizkariaren lehen eta bigarren zenbakiak osorik,

www.susa-literatura.com

eguneroko poema eta ipuina, liburu agortuak doan, testu argitaragabeak, loturak...

Susa
literatura